Andoaingo Udala

ANDOA INBIZI TZEKO

# GALARDI UDAL HAURRESKOLA:
# 2023-24 ikasturteko azken matrikula epea zabalik

**Andoainen, 24-01-08.-** Galardi Udal Haurreskolaren 2023-2024 ikasturteko azken matrikula epea zabalik dago: urtarrilaren 8tik 20ra (biak barne) egongo da aukera haurrak matrikulatzeko, eta martxoa, apirila, maiatza eta ekainean hasiko diren haurrek eman dezakete izena.

Izen-ematea Bastero Kulturguneko lehiaketilan egin beharko da eta ondorengoa da aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- Eskaera orria beteta
- Aurreko urteko errenta aitorpenaren kopia edo jasotako diru sarrera gordinen ziurtatua (gurasoetakoren batena)
- Haurrak bere adinerako txertoak dauzkala egiaztatzen duen ziurtagiri medikua. Zaintza berezia beharko balu, alergiak, intolerantziak eta bestelakoak, bertan jasoko dira.
- Famili liburuaren kopia (haurra azaltzen den orriarena)
- Famili ugariaren tituluaren kopia, izanez gero.
- Andoainen erroldatuta ez balego, elkarkidetzako ziurtagiria.

Hemen kontsulta liteke Galardi Udal Haurreskolako zerbitzua.